

Erf.: Kalez kaleko salmenta arautzen dauen Ordenantzaren hasikerako aldaketari egindako alegazioak
Tx. zk.: 2022/17

Karmele Muñoa Arrigain andreak, Bermeoko Udaleko idazkaritza saileko Administrazio Orokorreko teknikariak, jarraian zehazten dan gaiari buruz egiten dot honako

TXOSTENA

Planteatutako gaia

Kalez kaleko salmenta arautzen dauen Ordenantzaren hasikerako aldaketari egindako alegazioak aztertzea.

Nork eskatu dauen txostena

Idazkaritza Sailak.

Argudio juridikoak

a) Aurrekariak

Lehenengoa: 2021eko irailaren 24an, Udal Osoko Bilkureak, Kalez kaleko salmenta arautzen dauen Ordenantzaren aldaketa hasikeraz onartzea erabagi eban.

Bigarrena: 2021eko abendurearen 30an, entzunaldi epearen barruan, Bizkaiko Saltzaile Ibiltarien alkarteko presidentek, hasikeraz onartutako Ordenantzaren aurkako alegazioak aurkeztu ebazan (2022ko 324 S.E).

b) Oinarri juridikoak

Lehenengoa: Bizkaiko Saltzaile Ibiltarien alkarreak aurkeztutako alegazioetan honakoak argudiatzen dira:

- 1. artikuluari jagokonez, 199/2010 Errege Dekretua, 538/2021 Errege Dekretuaren bidez indargabetu zala eta, ondorioz, artikulua zuzendu egin behar dala.
- 12. artikuluan: "Productos en venta" dioen lekuan, "Productos a la venta" esan behar dauela, eta ulertzen dabela kalez kaleko salmentan edozelako artikulua eta elikagai saltzea baimentzen dala, bestela elikagaien salmenta bakarrik onartzen dela ulertzen delako.
- 13.3 artikuluan "Hegalkinaren gehieneko zabalera hiru metrokoa izango da" gehitzea proposatzen dabe, errealitatea hori dala argudiatuz.
- 19.6. artikulua dala eta: 12.1 artikulua ez dela existitzen eta, 13.1 izango dala.

CSV: 07E6009565D00W7R3P4U1D1M6

00098C0A0012C0E2D1U2T7



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60009565D00W7R3P4U1D1M6

Sinadurea eta data
MIREN KARMELE MUÑO A ARRIGAIN- IDAZKARI AKZIDENTALA - 31/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 31/03/2022
14:36:34

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0205
Data: 01/09/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E600098C0A0012C0E2D1U2T7

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA- IDAZKARI NAGUSIA - 29/04/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/04/2022
14:08:11

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0205
Data: 01/09/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



-21. artikulua dala eta, Ordenantzak aldizkako barriztapenak baimendu behar dauzela, 199/2010 EDa indargabetuta dagoelako. Aukera hori jasotzeko testu proposamena egiten dabe.

-22.h) artikuluan, aldaketa hau proposatzen dabe: "19. artikuluan ezarritako errebokazioa, interesdunei entzun ondoren".

-23.1.e) artikuluan aipatzen dan artikulua 19.2 izango dala.

-24.1.a artikuluan aipatzen diran artikulak 13 eta 14 izango dirala.

-I. Eranskinetako artikulua eta paragrafoak ez datozela testuko artikuluekatz bat, eta zigorrak altuak dirala.

II. Eranskinetan indargabetuta dagoen 199/2010 Errege Dekretua aitazten dala".

199/2010 Errege Dekretua indargabetuta egoteari jagokonez, alegazioetan esaten dan moduan da, hori dala eta, Errege Dekretu horri egindako aipamen guztiak zuzendu eta egokitu beharko dira, II. eranskinetako barne.

Bigarrena: 12. artikuluan "Productos en venta" dioen lekuan, "Productos a la venta" ipinteko egiten daben proposamena dala eta, ez da eragozpenik ikusten proposatutako moduan ipinteko.

Bestalako produktuak ere saldu daitezkeela bermatzeko erredakzino aldaketari jagokonez, aldaketa egitea egoki ikusten da eta modu honetan idaztea proposatzen da:

"18. Artikuluan zerrendatutako edozein produktu eta elikagai saltzea baimendu daiteke kalez kaleko salmantan, beti ere indarrean dagoen araudiak ez badu debekatzen edo mugatzen saltzea, eta zorrotz betetzen bada elikagaien osasun araudi tekniko eta aplikagarria den gainerako legeria".

Hirugarrena: 13.3 artikulurako egiten dan proposamenari jagokonez, azokatxoko gunearen antolaketari eragiten deutesonez, Zerbitzu Sailak egokia dan txostena emotea eristen da egokien.

Laugarrena: 19.6. artikuluan aipatzen dan 12.1 artikulua ez dela existitzen eta, 13.1 izango dala esaten da eta, kontutan eukita hasikeraz onartutako aldaketan lehengo 12. artikulua ezabatuta dagoela, Ordenantzaren testu horretara egokitu eta zuzendu behar da.

Eta hori bera aplikagarria da alegazioetan aitazutako 23.1.e) eta 24.1.a) artikuluetako eta I. eranskinetako akatsei.

Beraz, akats horiek zuzendu eta testua behar dan moduan idatzi beharko da.

Bosgarrena: 21. Artikulurako egiten daben proposamena dala eta, esan da 199/2010 EDa indargabetuta dagoela, baina horrek ez dakar baimenak barriztatu ahal izatea zuzenean, euren iraupena amaitzen dan.

Zerbitzu-jardueretan askatasunez sartu eta aritzeari buruzko 17/2009 Legeak honakoa dio 8.2.b) artikuluan: "2. Cuando el número de autorizaciones para realizar una determinada actividad de servicios esté limitado: (...) b) La autorización que se conceda tendrá una duración limitada y

CSV: 07E60009565D00W7R3P4U1D1M6

00098C0A0012C0E2D1U2T7



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60009565D00W7R3P4U1D1M6

Sinadurea eta data
MIREN KARMELE MUÑOZA ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 31/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 31/03/2022
14:36:34

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0205
Data: 01/09/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unida: Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E600098C0A0012C0E2D1U2T7

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 29/04/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/04/2022
14:08:11

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0205
Data: 01/09/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unida: Erregistro nagusia



proporcionada atendiendo a las características de la prestación del servicio y no dará lugar a un procedimiento de renovación automática ni conllevará, una vez extinguida la autorización, ningún tipo de ventaja para el prestador cesante o para personas especialmente vinculadas con él”.

Beraz, artikulua horretan xedatutakoa gure kasura aplikatuz, baimenak automatikoki ez barrizatzea egoki ikusten da.

Kontutan izan behar da aitaturako Legea oinarritzakoa dala, bere 1. Azken Xedapenak dinoenaren arabera.

Seigarrena: 22.h) artikulurako proposatzen daben aldaketa dala eta, gaztelaniazko testuan akatsa dagoela egiaztatu da eta, ondorioz, zuzendu egin behar da.

Zazpigarrena: Isunak altuak dirala dioen argudioari jagokonez, legediagaz bat datozen heinean, ez da beharizanik ikusten ezelako aldaketarik egiteko.

Zortzigarrena: Erabagia hartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Erregimenaren Testu Bateratua onartzen dauan 781/1986 EDLk, bere 56. artikuluan, hauxe jasotzen dau: “La aprobación de las Ordenanzas locales se ajustará al procedimiento establecido en el artículo 49 de la Ley 7/1985, de 2 de abril. Para la modificación de las Ordenanzas y Reglamentos deberán observarse los mismos trámites que para su aprobación.”

Eta Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dauzen 7/1985 Legeak, bere 49. artikuluan, honakoa arautzen dau: “La aprobación de las Ordenanzas locales se ajustará al siguiente procedimiento:
a) Aprobación inicial por el Pleno.
b) Información pública y audiencia a los interesados por el plazo mínimo de treinta días para la presentación de reclamaciones y sugerencias.
c) Resolución de todas las reclamaciones y sugerencias presentadas dentro del plazo y aprobación definitiva por el Pleno (...)”.

Hori dala eta, Osoko Bilkurak egondako alegazioak ebatzi eta Ordenantza behin betiko onartu beharko dau, egokia dan Batzorde Informatiboan diktaminatu ondoren, Udalbatzen Antolaketa, Jardunbidea eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamendua onartzen dauen 2568/1986 EDko 82.2 artikulua gataz bat.

7/1985 Legearen 22.2.d) eta 47. artikuluen arabera, erabagia hartzeko gehiengo, gehiengo soilak da.

Konklusioa: Jasotako alegazioen ondorioz, honakoak egin behar dirala eristen da:

- 1.- 199/2010 Errege Dekretuari buruzko erreferentziak kendu behar dira, indargabetuta dagoelako.
- 2.- Artikuluetako zenbakiak eta euren erreferentziak zuzendu behar dira.
- 3.- 12. artikulurako proposatzen daben aldaketa jaso.
- 4.- Gaztelaniazko alean, 22.h) artikulua idazketa zuzendu.

CSV: 07E60009565D00W7R3P4U1D1M6

00098C0A0012C0E2D1U2T7



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60009565D00W7R3P4U1D1M6

Sinadurea eta data
MIREN KARMELE MUÑOZA ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 31/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 31/03/2022
14:36:34

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0205
Data: 01/09/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidea: Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E600098C0A0012C0E2D1U2T7

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 29/04/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/04/2022
14:08:11

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0205
Data: 01/09/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidea: Erregistro nagusia



- 5.- 13.3 artikulua ganean egindako proposamena dala eta, Zerbitzu Sailaren txostena eskatu.
- 6.- Bestelako alegazioak ezeztatu.
- 7.- Erabagia, Osoko Bilkureak hartuko dau, gehiengo soilaz, Erakunde eta Kontu Batzorde Berezian diktaminatu ondoren.

Informatzen doguna, legean oinarritutako beste edozein txostenen kalte barik.

Bermeon, 2022ko martxoaren 31n.

Karmele Muñoa Arrigain
Idazkaritzako AOT



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60009565D00W7R3P4U1D1M6

Sinadurea eta data
MIREN KARMELE MUÑO A ARRIGAIN-IDA ZKARI AKZIDENTALA - 31/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 31/03/2022
14:36:34

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0205
Data: 01/09/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E60009565D00W7R3P4U1D1M6



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E600098C0A00I2C0E2D1U2T7

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDA ZKARI NAGUSIA - 29/04/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/04/2022
14:08:11

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0205
Data: 01/09/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

